

Portland ♦ Badel Zagreb izango dute aurkari Europako Txapeldunen Ligako finalerdietan

Aldeko zozketa

Eskatutako aurkaria izango dute, eta bigarren partidua etxean

Gorka Zabaleta / Donostia

SAN ANTONIOKOAK gustura egoteko moduan daude atzo Vienan egindako zozketako emaitzarekin. Kroaziako Badel Zagreb taldea izango dute aurkari, eta kanporaketako bigarren partidua Arrosadian jokatuko dute. Beste finalerdian, Esloveniako Celje eta Barcelona izango dira aurrez aurre, eta bigarren partidua Katalunian izango da. Ez dago gehiago eskatzetik. Debutaren urtean, San Antonio Europako lau onenen artean sartu da. Arrosadiatik Goteborg, Plzen, Celje eta THW Kiel pasatu dira, eta orain Badel Zagreb. Barcelona urtero etortzen dela kontuan izanda, Arrosadiako jarraitzaileek Europako talde onenak ikusteko aukera izan dute.

Joaneko partidua otsailaren 27an jokatuko da, Zagreben, eta itzulikoa martxoaren 6an, Arrosadian. Kielen aurka 7000 ikusleren aurrean jokatu bazuten, Zagreben 11000 izan daitezke Dom Sportova pabilioian. Gainera, Alemaniako jarraitzaileak baino askoz zatatsua goak dira.

Saracevic, Maglajlija eta Pusnik

Badel Zagreb bost aldiz izan da Txapeldunen Ligako finallean 90eko hamarkadan. 1991n eta 1992an txapelduinak izan ziren, eta 1995ean, 1997an eta 1998an txapel-dunorde. Kalitate handiko



THW Kiel kanpoan utzi ondoren, Portlandek Badel Zagreb gaintitu beharko du orain finalerdietan.

jokalariak dituzte, baina azken urteotako izar handienek ihes egin diete —Cavar, Goluz—. Izen ezagunak ez dira falta, ordea, Badel Zagreben. Saracevic jaurtitzaila bikaina —38 urte ditu, Buliganek bezala—, Bidasoan aritutako Maglajlija pibotea eta Rolando Pusnik San Antoniko atezain ohia —datu bitxia, Kielgo Stojanovi-

cek ere San Antoniko atea defenditu baitzuen—. Hauekin batera, Bilic, Dzomba, Zrnic eta Udovici dira gizon garrantzitsuenak.

Finalerdi orekatua, Errekondoren ustez

Xabier Mikel Errekondo gus-tura agertu zen atzo zozketak emandakoarekin: «Guz-

tiok pozik gaude, batez ere bigarren partidua etxean izango delako. Hala ere, esan nahi nuke ziurrenik beraiek ere pozik egongo direla. Azken urteetan irabazi nahian dabilta, eta ziur gogo biziz ariko direla finale-ra iristeko. Nik uste dut alde zaurretik ezin dela esan zein den faborittoa. Biok dugu finalean izateko maila».

Badel Zagrebeko jokalaria greban daude

■ EUROPAKO lau onenen artean sartu dira aurten ere, baina une honetan Badel Zagrebeko jokalarien kezka nagusia bestelakoa da. Badi-rudi kirol arloan puntan dabilen talde honek diru arazo larriak dituela, eta jokalariek eta entrenatzaileak greba egitea erabaki dute ego-
era zuzendu bitarte-

an. Velimir Kljajic entrenatzaileak esan duenez, ez dute berriro entrenatzeko asmorik Badelek di-tuen diru arazoak ez badira konpontzen. «Egoera aldatu arte, oporretan gaude. Ez gara lanera itzuliko zor zaigun dirua ordaindu arte. Zagrebek behar bagaitu, behar bezala zain gaitzala. Ligan ere ez

dugu jokatuko arazoak konpondu arte», adierazi zuen atzo Kljajicek Zaporozhe taldea kanporatu ondoren. Neurri honekin presioa egin nahi dute jokalariek, zenbait erakundek agindutako dirua behingoz jasotzeko. Frane Matulic Badel Zagreb taldeko presidenteak azaldu zuenez, diru asko

zor zaio klubari: «Udalak 75 milioi pe-zeta emango zizkigula agindu zigun, eta oraingoz 6 milioi baino ez ditugu jaso. Dirudienez, klub hau proiektu garestiegia da hiri honentzat. Hala bada, eskubaloia utzi eta beste zerbait egin beharko dugu». Grebak noiz arte irauten duen ikusi behar.

Europako txapelketak

Txapeldunen Liga

Celje-Barcelona

Badel Zagreb-Portland

Errekopa

Vardar-Ademar Leon

Partizan-C. Cantabria

EHF Kopa

Lemgo-Magdeburgo

Sanderfjord-Valladolid

City Kopa

Flensburg-Nettelstedt

Ciudad Real-Drammen

Joanekoak: otsailaren 27-28an

Itzulikoak: martxoaren 6-7an

Bidasoa ♦

Etxabururi kendu egin diote Espainiarekin ez jokatzeagatik jarritako zigorra

Apelazio Batzordearen ustez, osasun arrazoiengatik egin zion uko jokalariai deiari

Erredakzioa / Donostia

DENBORAK arrazoiak eman dio Aitor Etxabururi. 1997an Espainiako selekzioaren deiari uko egitea erabaki zuen, garai haietan Bidasoak bere beharra zuelako. Beñardo Garcia orduko presidentek bere lau jokalariek internazionaleri —Etxaburu, Olalla, Storgaard eta Kovacevic— selekzioarekin ez joateko eskatu zien, taldearekin lan egiteko eta egoera larri hartatik atera ahal izateko. Etxaburuk, Kovacevicek eta Storgaard onartu zuten —azken hau lesionaturik zegoen—, baina Olallak ez, zigorraren beldur. Eta zigorra iritsi zen, Aitor Etxabururentzat. Eibartarrari 500.000 pezetako zigorra ezarri zion Espainiako Federazioak. Jokalaria, Bidasoako abokatuaren aholkupean, errekurtsio bat aurkeztu zion Apelazio Batzordeari, baina bere garaian honek ez zuen onartu, eta zigorra bere horretan uztea erabaki zuen. Joan den urteko uztailan bigarren errekurtsio bat aurkeztu zuen Etxaburuk, eta oraingoa onartuak izan dira bere arrazoiak, eta zigorra kendu egin diote. Dizi-plina Batzordeak Etxabururen erabakian osasun arrazoiak daudela uste du, eta gainera jokalaria Espainiako selekzioarekin izan duen ibilbide luzea ere kontuan hartu dute.

Davidek kontratua luzatu du

David Rodriguezek Bidasoarekin jokatuko du datozen hiru urteetan, orain arte zuen kontratua urtebetez luzatu ondoren. Egiako zentralak ebakuntza izan du duela gutxi, baina jokalariek garrantzitsua da irungo taldean.